



Murgildu boluntario gazteek antolatutako udako ekintzetan!

- Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako astialdi taldeetako boluntarioek urtean zehar egin duten lanari esker aukera mordoa izango dira aurten: **69 elkarte antolatuta 120 ekintza**
- www.astialdiforooa.org eta www.egk.org atarietan eskegi dute udaleku ireki, kanpaleku, auzolandegi eta nazioarteko elkartrukeen eskaintza

2016eko apirilaren 13an. Euskadiko boluntario gazteek osatzen dituzten astialdi elkarteek udako kanpaina prestatu dute dagoeneko. Aldundiek eta beste instituzioek antolatzen dituzten udalekuen eskaintzaz gain, **Euskadiko milaka gazte boluntarioek ere, urtero bezala, udako kanpaina antolatu dute.** Horrela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako **69 taldek 120 udaleku** eta opor-jarduera antolatu dituzte. Guztira, **boluntarioz osaturiko elkarte horiek 10.000 plaza eskaintzen dituzte** udaleku, auzolandegi, topaketa eta bestelako udako ekintzetan parte hartzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan Astialdi Foroan koordinatzen diren federazio eta eskolek proposamen horiek guztiak biltzen dituen gida aurkeztu du gaur, **Udan Astialdia astindu! Ilolean.** Zerrenda bat aurkeztu dute EAE-ko lurralde bakoitzeko, antolatzaileen jatorriaren arabera. Zehazki, **Arabian 15 elkarte 19 ekintza** prestatu dituzte; **Bizkaian, 41 taldek 69 txanda** diseinatu dituzte; eta **Gipuzkoan, 13 erakundek 32 plan** proposatzen dituzte.

Izena-emateko
urratsak
www.astialdiforooa.org
webgunean
zehaztuta daude

Ekainaren 18tik hasita eta abuztuaren 27ra arte, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, **3 eta 30 urte bitartekoentzat**, edozeinek parte hartzeko moduko planak daude: udaleku irekiak auzoan edo herrian, kanpaldi klasikoak Euskal Herrian edo Errioxa, Kantabria eta Huesca bezalako beste toki batzuetan eta kanpaleku ibiltariak kostaldetik eta Done Jakue bidean, besteak beste. Abentura- programak eta beste gazte-talde batzuekin elkartrukeak ere.

Murgildu udako ekintzetan!

EAEko hiru lurraldeetako astialdi taldeetako boluntarioek urtean zehar egin duten lanari esker dira posible aukera guzti hauek. Hori dela-eta, EGK-k inguruko bat aukeratzea aholkatzen du. Honela, **ikasturtean zehar ere talde horretan parte hartu eta murgildu ahal izateko aukera izango dute gazteek** hala nahi izanez gero. Izan ere, erakunde hauek ez dute soilik udan lan egiten: **ikasturtean zehar bere auzo eta herrietan buru-belarri aritzen dira ere**, behar guztietara egokitzen diren ekintzetan. Planak, astialdi taldeak eta izena emateko epeak www.astialdiforooa.org eta www.egk.org helbideetan daude.